



ENKARTERRIN MAKRO EOLIKORIK EZ

KOMUNIKATUA
Bilbo, 2023.012.13

Egun on,

Gaur hemen gaude administrazioari 3000 herri-alegazio baino gehiago emateko "Artzentales-Sopuerta Parke Eolikoa eta bere ebakuazio-lerroa" izeneko megaproiektuaren aurka; Artzentales, Sopuerta, Galdames, Muskiz, Zalla eta Gueñesko udalerrietan Euskal Haizie enpresak proposatutako proiektua.

Alegazio horiekin, proiektua erabat ezeztea eskatzen dugu, izan ditzakeen ingurugiro eta giza- inpaktuengatik, baita edozein helburu klimatikori zein energia-subirotasunari dagokienez duten sendotasun ezarengatik. Mendi komunalen industrializazioaren eta pribatizazioaren aurka gaude, baita lurralde kaltetuetan populazioa pobretzen duen eredu makro-berriztagarriaren aurka, kapital handien mesedetan. Hau ez da irtenbidea!

Alegazio hauek azken asteetan egin dugun kanpaina handi baten emaitza dira, kaltetuko diren herrietako pertsona eta kolektibo askoren laguntzarekin, baita Enkarterri eta Euskal Herriko hainbat herriekin. Era berean, Karrantza Zabala, Zalla Bai eta Balmasedako CLI udal-talde independenteen babeseta eta CGT, CNT, ELA eta ESK sindikatuena ere jaso dugu.

Eskerrak eman nahi dizkiegu kanpaina parte hartu duten guztiei, sare-lan honek erakusten baitu herritarren gaitzespen zabala dagoela mega-proiektu horien aurrean, baita konpromezua lurraldea defendatzeko, zuzenean kaltetutako populazioaz gain.

Era berean, orain arte kaltetutako udalerrietako udalek, ekintza eraginkorrak baino, adierazpen sinboliko gehiago egin dutela sentitzen dugu. Sopuerta zein Artzentalesko udalek proiektu honen aurkako mozio batzuk onartu zituzten arren, aldez aurreko fasean, ez dute administrazio-urratsik egin, industrializazio baten aurrean kaltetuak izango diren eremu horiek babesteko. Zentzu honetan, gogoratzen dugu Udalak funtsezkoak direla megaproiektu horiek ezartzea eragozteko.

Gure jarduerarekin jarraituko dugu herri- erantzuna ematen, Eusko Jaurlaritza, Estatua eta Europa lantzen ari diren eskubideen galtzearen aurkako legeei. Hilabete gutxi barru argitaratuko da Balmaseda II aurreproiektua, eta ebazteke dago era berean Balmaseda I-ekoa. Onartze prozesuan dagoen Energia Berriztagarrien Lurralde Planean ezarritakoaren arabera, honako hau eskualdean gerta daitekeen izugarriko kaltea saihesteko mugimendu baten hasiera besterik ez da.

Proiektu horiei guztiei herri-mobilizazioekin baita kaltetutako beste eremu batzuekin sarean lan egiten erantzun bat emango diegu. Enkarterriko lurraldea aukeratua izan da energia kolonialismo eta finantza espekulazioaren prozesu oso zabal baten baitan, administrazioaren adostasunaz, enpresa handiek berdez tindatzen dutelarik baliabide naturalen espoliazioa. Geldiarazi behar ditugu!